

INFORMAZIO OHARRA

Eusko Ikaskuntzak egindako ‘Aniztasunaren kudeaketa demokratikoa Nafarroan: bizikidetza’ txostena aurkeztu da Foru Parlamentuan

Txostenak 2019an Foru Gobernuaren bermearekin abian jarritako prozesuaren deskribapena eta ondorio nagusiak jasotzen ditu

Iruñea, 2021eko maiatzak 19. Eusko Ikaskuntzak Nafarroako Foru Parlamentuko Hiritarrekiko Harremanetarako Batzordean [Aniztasunaren kudeaketa demokratikoa Nafarroan: bizikidetza](#) txostena aurkeztu du gaur, maiatzak 19, asteazkenez.

2019an, Eusko Ikaskuntzaren ekimenez eta Nafarroako Foru Gobernuaren laguntzarekin, lan-programa bat jarri zen abian, parte hartzeko, eztabaidatzeko eta herritarrei, gizarte-eragileei eta espezialistei irekia, bi ardatzen inguruan hausnartu eta hitz egiteko: Nafarroaren ezaugarri den aniztasuneko bizikidetza eta haren kudeaketa demokratikoa, gutxieneko premisa adostuak bilatuz. Gaur Iruñeko Ganbaran aurkeztutako txostenak garai honetan egindako lanaren deskribapena eta atera diren ondorioak biltzen ditu. Azalpenen arduradunak izan dira Eusko Ikaskuntzako lehendakaria den Ana Urkiza, Nafarroako lehendakariorde Mikel Aranburu eta Julen Zabalo eta Amaia Nausia Pimoulier, hurrenez hurren, zuzendari zientifikoa eta proiektuaren arduraduna. Ondoren, talde politikoek hainbat galdera egin dituzte.

Joan den maiatzaren 12an Eusko Ikaskuntzaren eta Nafarroako Gobernuaren artean 2021. urterako hitzarmen berria sinatu ondoren, datozen hilabeteetan programak aurrera egingo du hainbat ekimenekin. Horietako lehenengoa, hain zuzen, ekainaren 16an izango da: “Gure desadostasunak: Nafarroan desberdinen arteko konfiantza sortuz” jardunaldia, zeinak nazioarteko eta mundu akademikoko adituak bilduko dituen.

Goizeko saio bakar batean egingen da jardunaldia, formatu hibridoan: presentziala, Iruñeko Civicanen, eta online zoom plataformaren bidez. Parte hartu nahi duten guztiek eman dezakete izena Eusko Ikaskuntzaren web orriaren bidez (www.eusko-ikaskuntza.eus).

NOTA INFORMATIVA

Presentado ante el Parlamento Foral el informe ‘Gestión democrática de la diversidad en Navarra: convivencia’, elaborado por Eusko Ikaskuntza

El dossier recoge la descripción y principales conclusiones del proceso puesto en marcha en 2019 con el aval del Gobierno foral

Pamplona, 19 de mayo de 2021. Hoy, miércoles 19 de mayo, Eusko Ikaskuntza ha presentado ante la Comisión de Relaciones Ciudadanas del Parlamento Foral navarro el informe [Gestión democrática de la diversidad en Navarra: convivencia](#).

Fue en 2019, a iniciativa de Eusko Ikaskuntza y con apoyo del Gobierno Foral de Navarra, cuando se puso en marcha un programa de trabajo de carácter participativo, deliberativo y abierto a ciudadanía, agentes sociales y especialistas, para reflexionar y dialogar en torno a dos ejes: la convivencia en la diversidad, que es característica de Navarra, y su gestión democrática mediante la búsqueda de unas premisas mínimas consensuadas. El informe presentado hoy ante la cámara de Pamplona recoge la descripción del trabajo seguido a lo largo de este tiempo y las conclusiones a las que se ha llegado. La exposición del mismo ha estado a cargo de Ana Urkiza, Presidenta de Eusko Ikaskuntza, Mikel Aranburu, Vicepresidente por Navarra, y de Julen Zabalo y Amaia Nausia Pimoulier, Director científico y Responsable del proyecto, respectivamente. Posteriormente, los grupos políticos han planteado diferentes cuestiones y preguntas.

Tras la firma el pasado 12 de mayo de un nuevo convenio entre Eusko Ikaskuntza y el Gobierno de Navarra para el año 2021, en los próximos meses el programa avanzará con distintas iniciativas. La más inmediata, una jornada prevista para el 16 de junio que con el título “Nuestros desacuerdos: generando confianza entre diferentes en Navarra” reunirá a personas expertas del ámbito internacional y del mundo académico.

Esta jornada se desarrollará en una única sesión matinal en formato híbrido: presencial, en Civican de Pamplona, y *online* a través de la plataforma zoom. Toda persona interesada en participar puede inscribirse libremente a través de la web de Eusko Ikaskuntza (www.eusko-ikaskuntza.eus).